

## HAUSPOA 2020-2021

### OHARRAK

- **HAUSPOA** tailerrak eta errefortzuak **astelehenetik ostegunera arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara** ditugu. **Ostiraletan ez dago HAUSPOA**. Astelehenetik ostegunera 16:00etan autobus zerbitzua egongo da.
- Jangelaren erabilera HAUSPOAko erabiltzaileentzat lehenetsiko da. **Jangela zerbitzua astelehenetik ostegunera** izaten da 14:15etik 15:00etara. **Ostiraletan jangela zerbitzua badago**, baina ondoren **autobus zerbitzurik ez**.
- 2020/21 ikasturterako eskainiko diren behin-behineko tailerrak ondorengo orrian dituzue eta hori betetzeko hona hemen zenbait ohar:
  - Errefortzuak LH6ko tutoreekin adostuko dira. EUS. (Euskara), GAZTE (Gaztelania), ING. (Ingelesa) edo MATE. (Matematika) azaltzen bada egun batean, egun horretan errefortzua du eta ezingo du tailerrik aukeratu. Jangela behar badu egun horretan, jangelako laukian “X” egiteaz gogoratu!!!!
  - TAILERREN IRAUPENA:
    - FRANTSESA, ANTZERKIA ETA ZIENTZIA AZOKA: urte osoa
    - PINTURA ETA ZERAMIKA; KOMIKI TAILERRA ETA LABURMETRAIA: PINTURA ETA KOMIKI TAILERRA urritik urtarrilera bitartean eta ZERAMIKA ETA LABURMETRAIA, berriz, otsailetik maiatzera bitartean da.
    - Gainontzeko tailer guztiak bi txandatan banatzen dira: urritik urtarrilera eta otsailetik maiatzera. Ikasleek edozein txanda aukera dezakete, lantzen den edukia bietan errepikatu egiten baita.
- Proposatzen ditugun tailerren egoera behin-behinekoa da eta zuen esakaeren arabera, hauen bideragarritasuna aztertuko da ikasturte hasieran, ikastaro hauen behin betiko egoera zein den erabakiz eta hauen berri emanez.
- Tailer hauen informazioa ikastetxearen web orrian: [www.beasainip.net](http://www.beasainip.net) orrian, HAUSPOA atalean, tailerrak.
- Hauspoa orriak sinaturik (Hauspoa erabiltzaile edo ez) ikastetxera bueltatu behar dira eta zalantzarik izanez gero, deitu ( 943 899333) eta zuzendaritzarekin jarri harremanetan.